

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ZIENTZIA
ETA TEKNOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE CIENCIA
Y TECNOLOGÍA

MODELIZAZIOA ETA IKERKUNTZA MATEMATIKOA, ESTADISTIKA ETA KONPUTAZIOA MASTERRA

www.ehu.eus

AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Modelizazioa eta Ikerketa Matematikoa, Estatistika eta Konputazioa Masterrak lotzen ditu produkzio- zein ikerkuntza-sareen eskaera eta unibertsitatean irakasten diren ezagutza teorikoak eta teknikoak. Masterreko programaren bitartez, unibertsitate-graduako tituludun ikasleek teknika matematikoak ikasi, eta gaur egungo askotariko arazoetan aplikatu ahal izango dituzte. Horrez gain, ikerkuntzara bideratutako irakasgaiak ere eskainiko zaizkie. Helburua arlo teknologikoan eskarmentu handia duten profesionalak trebatzea da; gero, enpresan zein ikerketa-zentroetan aplikatu ahal izango dituzte ezagutzak, eta enpresen eta ikerkuneen arteko lankidetzak bultzatuko dute. Unibertsitate arteko masterra da. Honako hauek dira unibertsitate parte hartzaileak: UPV/EHU, La Laguna, Errioxako Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Oviedoko Unibertsitatea eta Zaragozako Unibertsitatea. Irakasgai

bakoitza campus batean soilik irakasten da. Irakaskuntza bi etapatan banatzen da: lehenengoa, UPV/EHU n egiten da, urritik abendura; bigarrena, Zaragozako Unibertsitatean, urtarritetik martxora.

Masterreko irakasgai batzuk eremu profesionalera bideratuta daude, zenbait arlotan: modelizazioan, optimizazioan, estatistikan eta konputazioan. Beste batzuk, ordea, irakasgai teorikoak dira: analisi matematikoa, aljebra eta geometria/topologia. Masterra amaitutakoan, ikasleek aukera dute programaren barneko unibertsitateetako doktorego-programetan izena emateko. Masterraren helburu nagusia modelizazioan eta benetako arazoak teknika matematikoen bitartez ebaztean eskarmentua bereganatzea da; hortaz, irakasleek adibide ugari eman, eta simulaziorako bereziki diseinaturata dagoen software berezia erabiliko dute.

SARBIDEA

Zientzietako gradua edo lizentzia (Matematikak, Fisika edo Estatistika), edo matematika-oinarri sendoa duten ingeniarietzetan. Teknologian, industrian eta

beste zientzia batzuetan agertzen diren problemek matematikaren bidez irtenbideak emateko edo ikerketa-ibilbidean hasteko bokazioa.

IRTEERA PROFESIONALAK

Teknologia-zentroak; ikerkuntza; softwarearen diseinua eta programazioa; logistika, banaketa eta industria-prozesuen optimizazioa; kalitatearen kontrola; bankuen

eta aseguruaren arloko arriskuen azterketa; datuen eta estatistiken prozesamendua; energia-sektorea.

ONARRIZKO INFORMAZIOA

Eskolak emateko lekua:

Zientzia eta Teknologia Fakultatea (Leioa), UPV/EHU. Zaragozako Unibertsitatea.

Irakaskuntza mota:

Eskolan bertakoa.

Hizkuntza:

Gaztelania.

Gutxi gorabeherako prezioa:

2.200-2.400 €.

Egutegia:

Urritik apirilera, goizez eta arratsaldez.

IRAKASTORDUAK / IRAUPENA

60 ECTS / ikasturte 1 (bi urtean egin daiteke)

Nahitaezko
Gaiak

48 ECTS kreditu

Proiektuak /
Ikerketa-lanak

12 ECTS kreditu

Guztira

60 ECTS kreditu

PRESTAKUNTZA PROGRAMA

- Algoritmo Bioinspiratuak eta Konputazio Ebolutiboko Teknikak
- Analisi Funtzionala eta Fourier-en Analisia
- Datu-baseak eta objektuei bideraturiko programazioa.
- Kodeketa eta Kriptografia
- Dinamika es lineala eta aplikazioak
- Ordenagailu bidezko diseinu geometrikoa
- Deribatu Partzialeko Ekuazioak
- Barietateen Geometria
- Taldeak eta beren Adierazpenak
- Datu-meatzaritzarako sarrera
- Zenbakizko metodoak fisika eta ingeniartzan
- Eredugintza estatistikoa
- Logistika ereduak
- Seinalaren eta irudiaren prozesatzea
- Prozesu Estokastikoak eta Probabilitatea
- Programazio Zientifikoa eta Aljebra Konputazionala
- Denborazko serieak
- Optimizaziorako teknika klasikoak
- Kontrolaren teoria
- Topologia Aljebraikoa

Master amaierako lana

HARREMANETARAKO

Arduraduna:

Carlos Gorria Corres

Tel: 946015343

Posta elektronikoa:

carlos.gorria@ehu.eus

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK / BABESLEAK



UNIVERSIDAD
DE LA RIOJA



Universidad de Oviedo



Universidad
Pública de Navarra

Zaragoza



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Universidad
de La Laguna

upna

Universidad
Nafarroako
Unibertsitate Publikoa

